

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p>1. Hainbat euskarri erabilita, Lurraren sorrera eta historia interpretatzeko dauden metodoak identifikatuz, emandako galderak eta adierazpenak erantzun, balioetsi eta arrazoitu.</p>	<p>1.1. Lur planetaren historia interpretatzeko metodoak zuzen identifikatu eta arrazoitu ditu.</p> <p>1.2. Lur planetaren adina kalkulatzeko metodoak zuzen identifikatu eta azaldu ditu eta datazio erradiometrikoaren oinarria ezagutzen du.</p> <p>1.3. Estratigrafiari lotutako ezaugarriak zuzen identifikatu eta arrazoitu ditu.</p>
<p>2. Emandako euskarriak erabiliz eta fosilak gertatutako aldaketen lekukoak direla identifikatuz, Lurraren historian izan diren gertaera nagusiak eta galderak erantzun, adierazpenak balioetsi, arrazoitu eta hipotesiak formulatu.</p>	<p>2.1. Lurraren historiaren eskala geologikoari lotutako gertaerak ondo identifikatu eta arrazoitu ditu.</p> <p>2.2. Lurraren periodo geologikoak egoki identifikatu ditu.</p> <p>2.3. Fosiltze-prozesua eta fosilek duten garrantzia ongi identifikatu eta arrazoitu ditu.</p>
<p>3. Ikereketen bidez, emandako euskarriak erabiliz eta formulatutako galderak eta adierazpenak erantzunez eta balioetsiz, Lurrean izan diren eta gertatzen diren aldaketa geologikoen ezaugarri nagusiak identifikatu, azaldu eta arrazoitu.</p>	<p>3.1. Historian zehar gertatutako aldaketa geologikoak azaltzeko pentsamoldeak ongi identifikatu eta azaldu ditu.</p> <p>3.2. Lur planeta ikertzeko metodo motak desberdintzen ditu eta lurra zeharkatzen duten uhin motak zuzen identifikatu eta azaldu ditu.</p> <p>3.3. Litosfera-plaken mugimenduak eta haien mugetako fenomenoak ongi identifikatu eta azaldu ditu.</p> <p>3.4. Arroken ziklo geologikoa ongi azaldu du.</p>